

Siemens Gamesa Agoitz



Bultzada publikotik deslokalizaziora

2020ko uztaila

1. Nafarroako sektore eolikoa: bultzada publikotik deslokalizaziora.....	3
2. Gamesak bere lantegiak Nafarroatik kanpora eramateko etengabeko joera izan du.....	3
3. Gamesa Agoitz lantegiaren ibilbidea.....	4
4. Nafarroako jendegabetzearen arazoa areagotuko zen.....	6
5. Nafarroan langabezia handituko lukeen itxiera.....	6
6. Energia berriztagarriak Nafarroako espezializazio-estrategiaren parte dira.....	6
7. Eskakizuna Nafarroako Gobernuari eta alderdi politiko guztiei.....	6

1. Nafarroako sektore eolikoa: bultzada publikotik deslokalizaziora

Nafarroa aitzindaria izan zen energia berriztagarria sortzen; eta, horretarako, erabakigarria suertatu zen Nafarroako Gobernuak 1989an Nafarroako Energia Hidroelektrikoa (EHN) sortzea. Financial Times egunkariak berak 2000. urtean saritu zuen EHN, energia berriztagarrien arloan munduko konpainiarik onena zelakoan. Era berean, Nafarroako Gobernuak Gamesa Eolikoaren sorrera bultzatu zuen 1994an.

Hala ere, alde batetik, 2004an Accionak EHN erosi zuen; eta, bertzetik, 2017an Gamesak Siemens alemaniarrarekiko "fusioa" iragarri zuen (gainera, enpresaren erabakigunea are gehiago urundu zen, 2020ko otsailean Iberdrolak bere %8ko partaidetza Siemensi saldu zionetik). Eragiketa hori berdinen arteko sinergia industrial gisa aurkezten saiatu zen Gamesa; baina benetan xurgapen bat izan zen, berregituraketa eta doikuntza ugari ekarri dituena. Izan ere, eragiketa gauzatu eta sei hilabetera, Siemens-Gamesak enplegu-erregulazioko espediente bat iragarri zuen 2018an, 226 langile kanporatzea izan zuena; eta, guztira, 700 kaleratze izan dira erosketa egin zenetik. Gogoratu behar da Gamesaren eta Siemensen arteko bat-egite prozesu hori txalotu egin zutela gure agintari politiko anitzek.

Beraz, badugu gure aitzinean sektore bat, eolikoa, Nafarroako erakundeek beti harro erakutsi dutena; baina erabakiguneak Nafarroatik kanpora joan dira, multinazional zeken eta begiramenik gabekoen eskuetara, hainbat eta hainbat familiaren etorkizuna kinka larrian uztea bost axola zaien multinazionalen eskuetara.

Siemens-Gamesak Agoitzen duen lantegia ixteko erabakia deslokalizazio hutsa da. Lantegi horrek ez du galerarik, dirua eurrez irabazten du. Baina are gehiago irabazi nahi dute, ekoizpena bertze lantegi batzuetara eramanez.

2. Gamesak bere lantegiak Nafarroatik kanpora eramateko etengabeko joera izan du

Gamesak 10 urte baino gehiago daramatza bere Nafarroako lantegiak ixten. Zehazki, 5 lantegi itxi dituzte (2 Imarkoainen, 1 Tuteran, 1 Olatzagutian eta beste bat Altsasun). Itxierarik traumatikoena, kaleratze kopuruagatik, Altsasuko lantegiarena izan zen 2010. urtean. Orduan 150 lan-kontratu deuseztatu ziren enplegu-erregulazioko espediente baten bidez, zeina gerora baliogabetzat jo baitzuen Auzitegi Gorenak 2015ean.

Itxiera horiek guztiek zerbait dute amankomun: ez dira oinarritzen benetako arrazoietan, arrazoi bakarra multinazional horren asmoa da, kosta ahala kosta hazten jarraitzeko.

3. Gamesa Agoitz lantegiaren ibilbidea

3.1. Lantegiaren hasiera eta garapena

Lantegiak hamaika urte baino gutxiago ditu; eta hura eraikitzeko, 64,5 milioi euroko inbertsioa egin behar izan zen. Nafarroako Gobernuak 2008an Agoizko lantegia eraikitzearen alde agertu zen, eskualde hartako enplegurako pizgarri gisa, Solanoren itxierak jota utzi baitzuen. Gainera, Nafarroako apustu estrategikoa izan zen; izan ere, energia berriztagarrien sektorea baliagarritzat jo zen autogintza sektorearekiko zegoen morrontza handia arintzeko. Helburu horri jarraikiz milioika euroko diru-laguntzak eman zitzaizkion Gamesari lantegia eraikitzeko.

Gamesa Agoitz lantegiaren ibilbidea 2009an hasi zen. Ireki baino hilabete batzuk lehenagotik ari zen Nafarroako Gobernuak lantegiaren berri ematen prentsan, eskualde hartako industria-sarea berriz bilbatzeko funtsezkotzat jo baitzuen. Gamesa Korporazio Teknologikoko orduko presidentek, Guillermo Ulaciak, prentsaurrekoa eman zuen 2008an, Miguel Sanz Nafarroako Gobernuko lehendakariarekin batera, eta palak fabrikatzeko lantegi bat 2009an Agoitzen irekiko zela iragarri zuten. Lantegia eraikitzeak 64,5 milioi euroko inbertsioa behar izan zuen, eta 2013an 400 pertsona baino gehiagori lana ematea aurreikusita zegoen. Garai hartan Miguel Sanzek zera adierazi zuen: ekoiztako palak handik kanpora garraiatzeko, 'beharrezkoa bazen 2 errepede egitea, eginen dira; eta 3 egin behar badira, 3 eginen dira'.

2009ko apirilean bukatu ziren Gamesa Agoizko lantegiko lanak. Lantegi berrian prototipo-palak ekoitzi behar zituzten garai hartako 135 langileek. 2018an, Gamesa Agoizko lantegiak gora egin zuen nabarmen ekoizpenari dagokionez, eta 2017ko 170 langileetatik 2018ko 380 langileetaraino heldu zen bere plantilla. Izan ere, Agoizko lantegian 2018an 170 pala ekoitzi baziren; hurrengo urtean, 2019an, kopuru hura bikoiztu egin zen.

Bertzalde, 2019ko urrian, Siemens Gamesak Portugalgo Senvion pala-lantegia erosi zuen, tamaina handiko lantegia hain zuzen, fabrikarako berriaz egindako itsas portu batetik 13 kilometrorra zegoena. Zuzendaritzatik lasaitasun mezua zabaldu zuen Agoizko langileen artean, erosketa hura mehatxu gisa ulertu baitzuten, deslokalizazioaren beldurrez, azkenean gertatu den bezala.

Gainera, joan den ekainean konpainiak iragarri zuenez, Markus Tacke lehengo kontseilari delegatua kargutik kendu eta Andreas Nauen, itsasoko atal eolikoko lehengo CEOa, izendatu zuten kargurako. Nauenen bere langileei iragarri zien lehendabiziko berregituraketa Agoizko lantegiaren itxiera izan da.

3.2. Arrazoirik gabeko itxiera

Zehazki Agoitzen iragarritako erabakiak ez du oinarririk hurrengo arrazoi hauengatik:

- Enpresak ez du galerarik, alderantziz diru anitz irabazten du; baina are gehiago irabazteko asmoz ekoizpena bertze lantegi batzuetara eraman nahian dabil.

- Gure lantegiko lan-karga bermaturik zegoen 2021eko irailera arte, eta gure lantegiaren itxiera zuzitzeko erabilitako argudioak aitzakia hutsak dira. Gure lantokiak 10 urte eskas ditu, eta oso lantoki lehiakorra da, produktibitate- eta kalitate-maila handikoa baita.
- Lantegiak duen tamaina nahikoa da pala handiagoak ere egiteko; dena dela, gaur egun Agoitzen ekoizten den eredia ez da katalogotik at geratu, eta Siemens-Gamesaren bertze lantegi batean, Tangerren, jarraituko dute egiten.
- Lantegiko Zuzendaritzak 2021eko zerga-ekitaldiaren amaierara arte zuen hitzemanan lan-karga. Eta hala dago jasota lantegiko kudeatzailearen eta enpresa-batzordearen arteko bileren aktetan.
- Gainera, SG155 prototipoaren fabrikazioa konpainiak Agoitzera ekarriko zuela iragarri zuena, azkenean beste zentroetara desbideratu dute, gure lantegia lan-kargarik gabe utziz.

3.3. Zuzendaritzak hilabeteak daramatza itxieraren plangintzan, eta orain uda batean iragarri du prentsaren bidez

Siemens-Gamesako Zuzendaritzak hilabeteak daramatza itxiera planifikatzen. Gu azken hilabeteetan buru belarri aritu gara lanean eskaera guztiak bideratzeko, eta haiek orain udan iragarri dute itxiera, langileen erantzuna ahulagoa izan dadin.

Hori gutxi balitz bezala, enpresak lan-karga 2021eko zerga-urteko amaierara arte (2021eko iraila) izanen genuela ziurtatu eta ia aste berean jakin genuen gure lantegiaren itxieraren berri hedabideen bitartez.

Horrek, errespetu faltaz gain, gure hitzarmen kolektibo aplikagarrian ezarritakoa ez betetzea dakar; izan ere, "Enpresek enplegua erregulatzeko espedienteak azken ratio gisa erabiltzeko konpromisoa hartzen dute, eta ez barne-prozedurak eta adiskidetze- eta bitartekaritza-bidea agortu gabe", eta, ildo horretan, "Langileen Estatutuaren 51. artikuluko prozedurak formalki aurkeztu aurretik, ordezkariekin artikulatuko dira". Enpresako langileena, informazio-sistemak, ahal den neurrian ez erabiltzeko.

Siemens Gamesaren zuzendaritzaren jokaerak aurrekoa ez betetzea ez ezik, argi eta garbi adierazten du itxiera saihesteko konponbideak bilatzeko asmo txarra duela; izan ere, azken egunera arte langile guztiei gezurra esan die, eta azkenean beste solairu batzuetara desbideratu duten lan-karga bat agindu die.

Hori dela eta, azpimarratu nahi dugu Zuzendaritzak aldebakarrez hasi duela erregulazio-espediente bat, non ez den inoiz egongo negoziazioan behar den fede ona, itxiera saihestuko duten alternatibak bilatzeko.

4. Nafarroako jendegabetzearen arazoa areagotuko zen

Gure lantegiak eragin handia du Pirinioaurreko eskualde osoan. Itxiera azkenean gauzatuz gero, Nafarroako jendegabetzearen arazo larria areagotuko da. Agintari politikoen kezkek jendegabetzeagatik etengabe entzuten ditugu, eta horren karira Parlamentuak jardunaldi batzuk antolatu ditu aurten bertan, 2020ko otsailean.

Alde horretatik, eta arazoaren tamainaz jabetzeko, Europar Batasunak despopulatzeko arriskua 12,5 biztanleko dentsitatean kokatzen du kilometro koadroko, eta Nafarroako Pirinio aurreko eremuan dentsitatea 7,7 biztanlekoa da kilometro koadroko.

Hori dela eta, gure erakundeei benetako inplikazioa eskatzen diegu lanpostu guztiei eusteko.

5. Nafarroan langabezia handituko lukeen itxiera

Nafarroan, Enplegu Zerbitzu Publikoak 2020ko ekainean argitaratutako azken datuen arabera, 40.464 pertsona zeuden langabezian. Datu horrek esan nahi du aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta % 33 hazi dela.

Gainera, langabeziak Nafarroan baino eragin handiagoa du Agoitzen. Hala, 2020ko ekainean, Nafarroako langabezia-tasa % 9,69koa zen, eta Agoitzen, berriz, % 13,66koa.

6. Energia berriztagarriak Nafarroako espezializazio-estrategiaren parte dira

Nafarroak urteak daramatza Espezializazio Adimendunaren Estrategian (S3) murgildurik, eta konpromiso hori Nafarroako Gobernuaren akordio programatikoan ere jasota dago. Bistan denez, energia berriztagarrien sustapena plan horren parte da, eta horrek Nafarroako Gobernuak premiatzen du tartean sartzera, lantegiko itxiera saihestearren.

7. Eskakizuna Nafarroako Gobernuari eta alderdi politiko guztiei

Ataka txarrean gaude, eta konponbideak behar ditugu. Soberan daude hitz ederrak eta elkartasun aizuna. Benetako konpromisoak eta egintzak behar ditugu.

Gorago azaldu dugunez Siemens-Gamesak ez du galerarik; baina, are diru gehiago irabazteko, deslokalizazio bat gauzatu nahi du. Eta hori ez da onargarria Nafarroako diru publikotik milioika euro jaso ondoren.

Gure agintari politikoek uneoro agertzen dituzte beren kezkek deslokalizazioengatik, eta aldi berean laudorioak baino ez dizkiete eskaintzen energia berriztagarriei. Ongi da horrelako adierazpenak egitea; baina erranak baino, eginak ikusi nahi ditugu. Nafarroako Gobernuak eta

alderdi politikoek ezin dute utzi Agoizko Siemens-Gamesa lantegia ixten.

Agoizko langileok dagokiguna egingo dugu (antolatu eta borrokatu), eta horregatik behar dugu Nafarroako Gobernuak, alderdi politikoek eta erakundeek beren esku dagoen guztia egitea lanpostuak bermatzeko.

Horregatik eskatzen dizuegu, bai Nafarroako Gobernuari bai alderdi politiko guztiei, zuen aldarrikapena egin dezazuela Agoizko lantegia ixtearen aurka, eta, Nafarroako gizartearen ordezkari zareten aldetik, eman ditzazuela beharrezko urratsak, zuen karguek enpresaren erabakia iraultzeko ematen dituzuen aukeren barruan.